

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

305 - 2022ko IRAILA



25 URTE ELKARTZEN
ETA PARTEKATZEN



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun
zentroa

Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia

Estetika

Presoterapia

Podologia

Laser-depilazioa eta

depilazio elektrikoa

Dietista-nutrizionista

Mikropigmentazioa ezpai-
netan

Mikroblading bekainetan

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Ali, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandezena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Elena Tome, Juan Carlos Buldain, Diario de Navarra, Ondare Kultur Taldea, Printza, Euskara Zerbitzua, Lekunberriko EH Bildu, Lekunberriko Udala, Ibai Tolosa, Juan Antonio Garaikoetxea, Plazaola, Araxes, Beatriz Egizabal, Agurtzane Altuna, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Iraileko zorion agurrak.

10

ELKARRIZKETA



Rosa Elizalde, Peio Rekalde, Juan Carlos Buldain eta Lontxo Otamendi

14

BATZARRE

16

ERREPORTAJEA



Lekunberriko erreka biziberritzeko bidean

20

ELKARRIZKETA

Ibai Tolosa



22

KIROLA

23

MAITE DITUT MAITE Gesalazeko ibilbidea

24

KULTURA Beatriz Egizabal

26

ERREPORTAJETXOA Festetako argazkiak!

28

PLAZATIK PLAZARA San Miguel santutegiko museoa.

31

AGENDA



Oihan Eskudero

Abuztuaren 7an, 3urte.
Zorionak, politte!! Segi orain bezain
alaia izaten. Muxu eta besarkada
erraldoi bat etxekoan partez.



Santi Urtiaga Sotil eta Josu Urtiaga Sotil

Irailaren 13an, 5 urte.
Zorionak, bikote! Ondo pasa
eta muxu handi bat.



Hugo Garcia Hernando

Irailaren 7an, 8 urte.
Zorionak, maitia
Gure sugandila txikia
haunditzen dijoa.
Muxu haundi-haundi bat
etxekoan partez.
Maite zaitugu!



Aratz Etxarri Zubeldia

Irailaren 23an, 6 urte.
Zorionak eta urte askotako, Aratz!!
Ongi pasa zure egunean famili guztiaren
partetik!



Haizea Aldaregia Balda

Irailaren 8an, 7 urte.
Zorionak, Haizea! Zeinen
handia egiten ari zaren...
Jarraitu zaren bezalakoa
izaten. Muxu haundi bat
Iraide, Aimar eta familia
guztiaren partez!



Ikerne Iriarte Olano

Abuztuaren 17an, urte bat.
ZORIONAK etxeko ttikinari.
Jada urte bat, nola handitu
zaren... Segi beti bezain
alai. Muxu potolo bat
Elaia, Enaitz, amatxo eta
aitatxoren partez.



Eider Azpiroz Arrizurieta

Abuztuaren 2an, 8 urte.
Zorionak, printzesa! Egun
eder bat pasa dezazula zure
urtebetetze egunean! Asko
maite zaituen familiaren
partez! Muxu haundi bat!!



Izadi Astiz Arangoa

Irailaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, Izadi!!!! Oso ongi pasa zure
eguna! Muxu goxo pilla etxekoan partez!!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.



LEKUNBERRIKO RADARRA: BIGARREN MULTAK JARTZEN

A-15 errepidean, Leitzarango autobidean, Lekunberrira ailegatzen da goen radarra multa gehien jartzen dituen Espainiako bigarrena da — orduko 80 kilometroko abiadurara mugatuta dago—. 2021. urtean 57.961 multa jarri ditu, AEA automobilen defentsarako elkartearen arabera; horrek esan nahi du egunean 158 jarri dituela batez beste. Orain dela hamahiru urte jarri zuten radar hori, istripu askogertatzen zirelako errepidearen zati horretan.



IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGAGAILUAK

Lekunberrin eta Larraunen ibilgailu elektrikoak kargatzeko gailuak irailan martxan jartzea aurreikusi dute bi udalek. Lekunberrin hiru instalatu dituzte: bi frontoiko plazan eta beste bat industrialdean. Larraunen, berriz, udaletxean. Larraunen doakoa izanen da datozen hiru hilabeteotan. Abendutik aurrera, berriz, tasa batzuk ordaindu beharko dira. Lekunberriko Udalak aurrerago azalduko ditu erabilerak eta baldintzak.




AUZOLANEAN, XENDAK ETA BIDEAK TXUKUNTZEN

Hainbat auzolan egin dituzte udan gurean; besteak beste, Belutara doan xenda garbitu dute (Errazkinetik Maillotara doana). 500 metroan sasiak moztu, aitzurrarekin bidea borobildu, belarrak jaisteko kableari polea bat jarri eta harri solte pila bat kendu dituzte. Uitzitik Azkaratera doan xendako bideko zubia ere konpondu dute, esaterako, Araizko Zaporeak taldeak eta Araizko Udalak.

► Sugoï Etxarri (Arruitz)



*Berriro itzuliko banintz
irla ero honetara
ibiliko nintzateke
berriro hona eta hara
Hemengo bizilagunek
nahiz ta izan hainbat traba
ez dute sekula galtzen
umore ona, algara
Besten bizimoduetaz
aberastuz bizi gara,
horrelako bidaietan
aldatzen da begirada
Bertso tropikal xume hau
bihotzetik atera da
Maillopek bidaia dezan
Euskal Herritik Kubara*



Doinua: Habanera. Hurrengoa: Maddi Soroa (Lekunberri)

EZGAUZA

Hogeita batgarren mendearren hasieraren inguruan, Iruñeko Iturrama auzoan, bazegoen familia bat, harreman handia zeukana nirekin. Aitaren gurasoek, tarteka-marteka kanpotik etorri eta egun batzuk ematen zituzten auzo hartan, semearen familiarekin. Hori dela eta, noizbait nirekin ere kointziditu eta biek ezagutu ninduten, andreak eta gizonak. Halakoetan, hau da, elkarrekin gertatzen ginenean, errespetu handiz hitz egin eta tratatzen ninduten; nonbait, kontzeptu on samarra zeukaten nitaz.

Udako egun batean, auzoan paseoan nenbilela bazkalarrean, beraien etxe ondoko banku batean, Felix jauna topatu nuen eserita, alegia, familia horren aitaren aita, antza denez, bisitan zegoena. Pixka batean hizketan aritu, eta, horren ondoren, hantxe bertan agurtu genuen elkar, hurrengo bat arte.

Gizona etxera joan eta bazkaltzen ari ziren bitartean, une jakin batean nitaz oroituta, kontatu nahi izan zien, arestian nirekin izan zela hizketan, kalean, etxe ondoko banku hartan. Baina gizonari, ordea, nire izena oroitu ez, eta hantxe hasi zitzaizkion komeriak eta estualdiak, azalpenak emateko momentuan:

-Bai, arestian hortxe izan naiz zuen lagun horrekin, zera, mutil bat, hona askotan etortzen dena. Nola du izena? -aitonak, estu eta larri.

-Ez dakit, ba, zer esan, gizona, hona mutil bat baino gehiago etortzen baita. Ematen ez badiguzu datu gehiagorik, ez da erraza asmatzea; auskalo nor izanen ote den! -erantzun zion errainak, gizona urduri eta ezin gogoratuta ikusirik.

-Bai, emakumea, zera, gorpil aulkian ibiltzen den zuen lagun hori, ezgauza edo ezdeusa dena, alegia, ezgaia eta deuseza, bai, zera, "inutila" dena.

-Aaaa!, zuk Xanti esan nahi duzu! -berretsi zion errainak, lotsagorrituta. Felix, ordea, zirkinik ere egin gabe gelditu zen, lasai baino lasaiago.

**Xanti Begiristain Madotz
Auritz. 2021-02-07.**



Lagunasesoría S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es


**Construcciones
Gañarbe**

**ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK**

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

☎ 616 457 540

✉ construccionesganarbe@gmail.com

☎ 636 827 846

aek

euskara praktikoa



EUSKARA

IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA

Larraungo AEK

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA

948 604 704 edo 607 622 102 | larraun@aek.eus

Izena eman irailaren 23a baino lehen
Artzanegi 6, Lekunberri

DIRULAGUNTZAK

Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak



HORRELA EZ, CHIVITE ANDREA

Nafarroako Gobernuko lehendakariak Diario de Noticias egunkariari eskaintako elkarrizketa ikusita, LAB sindikatua erantzun beharrean sentitu da. Izan ere, elkarrizketa horretan, lehendakariak ezarritzat jotzen du osasun arretarako sistema berri bat, profesionalak eta erabiltzaileak onartzen ez dutena, haiekin ez baita ez adostu, ez negoziatu.

Nola da posible zerbitzu publikoetan gero eta gehiago inbertitzea eta gero eta eskasagoak izatea?

Pandemiaz baliatu dira osasun arretarako sistema berri bat ezartzeko, Ayusok Madrilan eta Sagarduik Osakidetzan ezarritako ereduarekin antz handia duena. Horrek erakusten du Osasun Departamentuak ez duela gaitasun handirik gauzak planifikatzeko eta konponbideak bilatzeko: bateko eta besteko ideiak hedatzen ditu inolako abalik gabe, ebidentziarik gabe eta adostasunik gabe.

Horrez gainera, diru-funtsak ezin okerrago erabili dira (ikusitako produktibitateekin egin dutena, konponbide bat izan behar zena arazo bat bihurtu baitute), eta lankidetzaren publiko-privatuaren gaineko kontrola oso txikia izan da. Erabaki horiek profesionalen arteko soldata-arrakala handitzeko eta osasungintza pribatua aberasteko besterik ez dute balio izan.

Zergatik dira hain luzeak itxaron-zerrendak?

Formula magikorik ez dagoela eta dena diruarekin konpontzen dela esatea oso diskurtso sinplista da. Itxaron-zerrendak luzeak izatea gaitz endemiko bat da, ziklikoki gertatzen dena, sistema tentsionatzen denean (Covid pandemia batean edo gripe izurrite batean, esate baterako). Faktore askok eragiten duten arazoa da, Oinarrizko Osasun Laguntza sendotuz eta erabakiak hartzeko ahalmena emanez konpon litekeena, espezialisten eta Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuen arteko komunikazio sistemak indartuz, eta adierazle argi batzuk ezarri erabiltzaileen beharrak eta profesionalen eskaria ezagutzeko, planifikatzeko eta konpondu ahal izateko.

Oinarrizko Osasun Laguntzan gaur egun dagoen eredu hori da ezarri nahi dutena?

LAB sindikatuaren iritziz, Oinarrizko Osasun Laguntzan ezarri duten ereduak kaltegarria da nafar guztien osasunerako, eta galera handia da, bai arretaren kalitatearen aldetik, bai prozesuaren diagnostikoaren eta segimenduaren aldetik. Horregatik ugalduta dira aseguru pribatuak. Administrariak zaldien oinetan jarri dituzte, iritzi publikoak eta gainerako profesionalak larrutu ditzaten. Horri dagokionez, Chivite andrea oso gaizki informatua dago: administrariak ez zaie prestakuntzarik eman, ez zaie lan berezi hori errekonozitu, eta gaur egun ez daukate horrelako eginkizunak beren gain hartzeko prestakuntza eta gaikuntza nahikorik. Telemedikuntza

sistema bat ezartzeak heziketa handia behar du, batez ere osasun arloan.

SMN-Nafarroako Sindikatu Medikoa ez da mediku guztien ordezkaria

Medikuei buruz hitz egiten denean, irudi luke Osasun Departamentuak eta Chivite andreak SMN sindikatuaren iritzia besterik ez dutela kontuan hartzen. Baina SMN ez da mediku guztien ordezkaria, eta haiek planteatzen dituzten konponbide guztiak ekonomizistak dira. LAB sindikatutik uste dugu beharrezkoa dela medikuekin eta erizainekin eztabaida prozesu sakon bat irekitzea, konponbide eraginkorrak ezartzeko asmoz. Gaur egungo egoerara eraman gaituzten kausak ekonomikoak eta laboralak dira, baina arrazoi nagusietako bat izan da, baita ere, ez dela batera baloratu eta aitortu langileek oro har egin duten lana. Pandemia bukatuta, ez lehendakariak, ez Osasun Departamentuak ez dute inolako hobekuntzarik ezarri profesionalentzat.

Benetako planik ez duen plana

Ikusirik Chivite andrea eta Osasun Departamentua erakusten ari diren zehaztapen falta, beldur gara haien benetako asmoa ez ote den arlo publikoaren defentsarekin batera zerikusirik ez duten estrategia jakin batzuk inposatzea. Bruselako eskakizunak betetzen dira Europako diru-funtsak lortzeko, bakar-bakarrik. Eskakizun horien artean, osasun arloa teknifikatzea eta plantillak egonkortzea dago, baina, LABen iritziz, arlo horietan motz gelditzen ari dira, eta interes pribatuaren arriskua hor dabil beti bueltaka. Planen bat baldin badute, zabal dezatela, behar diren mahaietan eztabaida dezatela eta lortu nahi dituzten emaitzak jakitera eman ditzatela.

Nafar guztien lehendakariak eta Osasun Departamentuak ongi neurtu beharko lukete zer esaten duten. Izan ere, horrelako diskurtsoekin lortzen duten gauza bakarra da ongieza zabaltzea osasun profesionalen eta nafar herritarren artean, arreta-eredu honen erantzule gisa aurkezten dituztelako eta mentalitatea aldatzea exijitzen dietelako, baina trukean osasun sistema publikoan inolako hobekuntzarik eskaini gabe.

LABek ez du onartuko agintariak hartu dituzten erabaki horien erantzukizuna, berriz ere, herritarren esku uztea, iradokitzen dutelarik herritarrek bi aldiz pentsatu beharko luketela medikuarengana joan aurretik. Herritarrek osasun arreta publiko duina, presentziala eta kalitatezkoa hartzeko eskubidea dute, eta horri ez diogu inoiz ere uko egingen.



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Suizidioa prebenitzeko munduko eguna

Irailaren 10a Suizidioa Prebenitzeko Munduko eguna da. Beraz, hilabete hau aro probetza dezagun hain tabua den eta oraindik asko lantzeko dugun gai honi buruz hitz egiteko.

Suizidioari buruz hitz egitea minik egiten ez duena dela sinetsarazi digute, eta horrela urteak eta urteak daramatzagu horri buruz hitz egin gabe, gaur egun arte, Espainian lehen kausa ez-naturala dena, bere buruz beste egiteagatik hildako gehiago izan dituen trafikoko istripuegatik baino, pertsona bat bi ordu eta laurdenero, 3941 pertsona guztira 2021ean. Badirudi horri buruz ez hitz egiteak ez duela asko funtzionatu.

Lehenik eta behin, argitu behar da inork ez duela hil nahi, ezta bere buruz beste egiten duten pertsonak ere. Suizidioa barne-sufrimendu emozional izugarri baten ondorioa da. Sentitzen ari diren moduari beste irtenbiderik ikusten ez dioten pertsonak dira.

Ez da koldarkeria-ekintza bat, ezta ausardia ere, etsipen-ekintza bat baizik. Ez norberekoikeriagatik, baizik eta egintzak berak ez duelako beste aukerarik sortzen bere buruan, estatu disoziatu gisa ezagutzen den horretara darama.

“Pertsona guztiok suizidioa prebenitzeko agenteak izan gaitzke, horretarako jarraibide hauek ezinbestekoak dira”

“Suizidioa barne-sufrimendu emozional izugarri baten ondorioa da. Sentitzen ari diren moduari beste irtenbiderik ikusten ez dioten pertsonak dira”



Geroa baldinbaitere

Sustraiak dira. Historia da. Istorioak dira. Oroitzapenak. Harriak. Harriak bata bestearen gainean. Haurtzaroa(k) d(ir)a, mordoxka bat, gainera. Mendeak dira. Argazkiak dira. Analogikoan eta digitalean. Begiak. Familiaren berotasuna eta goxotasuna da.

Ospakizunak dira, opariak, aforiak, irribarreak, ilusioa. Adioak dira, negarrak, beti arteak.

Mila bederatzia ehun eta pikuko egunkari eta liburu horiztatuak dira. Ontziteriak. Hormetako paperak dira. Loreak. Sua eta ura. Lastoa da. Egurra da. Esku-pilota da. Aitzurra, sega. Zintzarriak dira. Txokolateak babesten dituen armairu zaharra, baina baita josteko "singer" makina beltza ere. Beiraztatuak dira. Laukidun amantalak dira. Sukaldea. Entza zarra.

Kantak dira. Inprobisatutako kontzertuak. Eskutitzak. Animaliak. Bizitza da, bizitza ulertzeko modu bat.

Hautsa da.

Hasiera da. Jarraipena. Bu-kaerarik, ordea, bistaraztea ez du inork nahi.

Orbainak dira, arrakalak. Hormak, sabaia, zoruak. Mina da. Bihotza(k) d(ir)a. Besarkada etenak. Errealitatea. Denboraren igarotzea. Ausardiaz eta gudaz inguraturiko bakea. Ate azpitik sartzen den haize hotza. Laguntza oihuak dira.

Ni izan nintzen. Naiz. Gu gara. Lehenaldia da. Oraina. Baina geroa baldinbaitere. Zutik. Beti zutik.

Beharrezkoa den beste gauza bat da pertsona guztiok suizidioa prebenitzeko agenteak izan gaitzkeela. Horretarako, honako jarraibide hauek ezinbestekoak dira:

- Jarrera: krisi-egoeretan lasai egoten saiatzea, beldurrik ez agertzea, ez epaitu edo aurpegiratu.
- Alerta-seinaleei adi egotea.
- Suizidioari buruzko gure sinesmenak berriz hezteak.
- Aktiboki entzutea, sortzen diren emozioei balioa emanez.
- Ideia suizida duen pertsona ulertzea. Pentsamendu sarkor horiek ulertzea.
- Ez egin erronka pertsonari.
- Ez hartu pertsonarekin konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisorik.
- Ez murriztu edo erlatibizatu horrela sentitzera bultzatzen zaituzten arazoak.
- Jakinarazi laguntzeko prest zauden pertsonari, eta, horretarako, egoera hori gainditzeko lagun dezaketenean beste pertsona esanguratsuzko batzuk inplikatzeko dituzula.
- Eskuragarri dauden laguntza-baliabideak daudela transmititzea.

Bereziketa honen sakontasunean sartu nahi baduzue, gomendatzen dizuet vigilantesdelavida.com orria bisitatzea eta gaiari buruzko doako prestakuntza egitea, zalantzarik gabe, merezi du segurtasun pixka bat gehiago sentitzea maite ditugun laguntzeko orduan.

Aitzitik, zuk badituzu ideia horiek buruan, zure emozioekin jota dagoenak ez izan zalantzarik laguntza eskatzeko. Alde batetik, zure konfiantza-zirkuluko norbaitekin hitz egin dezakezu epaituta sentitu gabe, eta, bestetik, osasun mentaleko profesionalekin. Ez zaude bakarrik.

Itxaropenaren telefonoa:

948 24 30 40

Larrialdietarako telefonoa:

112

Zalantzarik baduzu edo zure historia partekatzeko espazio seguru bat behar baduzu, ez izan zalantzarik niri idazteko edo deitzeko.



“Herritarren erantzun masiboa izan zen hunkigarriena hasieran”

25 urte bete berri ditu Beteluko Zigari elkarteak, eta festa giroan ospatu zuten uztailean. Rosa Elizaldek, Peio Rekaldek, Juan Carlos Buldaine eta Lontxo Otamendik hasierako pausoak gogoratu dituzte, eta uste dute gazteak gehiago animatzea dela elkartearen etorkizuna ziurtatzeko gakoa.

Nola hasi zineten elkartzen? Noren ideia izan zen?

Lontxo: Uste dut ni hasi nintzela dena mugitzen. Gogoratzen dut Rufino Buldaineekin hitz egin nuela, eta eskutitz bat prestatu nuela herritar guztiei bidaltzeko, azalduz gure asmoa zein zen eta esanez bilera bat egin behar genuela.

Peio: Ordurako, Arriben adibidez bazegoen elkarte bat, eta hangoak ongi funtzionatzen zuela ikusten genuen.

Juan Carlos: Eskola zaharrea bilera bat egin genuen, eta Onofre Iriarte etorri zen hitz egitera, azaltzeko Arribekoak nola funtzionatzen zuten.

jende asko zegoen egitasmoan parte hartzeko prest. Hasiera-hasieratik 80 pertsona inguru elkartzen ginen, eta azkenean 98 bazkidek inguruk eman genuen izena elkartearen. Herritar asko agertu zirenez hasieratik prest eta gogotsu, denak animatu ziren.

Rosa: Oso masiboa. Nik uste hori izan zela hunkigarriena. Pentsa, 350 biztanleko herri batean ia 100 agertu ziren laguntzeko eta parte hartzeko prest... Ikaragarria izan zen. Bilera hori egiterako, batzuk udaletxera joanak ziren alkatearekin hitz egitera, eta bilera horretan dagoeneko bagenekien non izango zen elkartearen, eta udalak baimena ere emana zeukan.

Lontxo: Rufino eta biok joan ginen alkatearekin hitz egitera, Angelekin.

Peio: Udalak lokala eman zuen, baina jabetza eman gabe; hau da, elkarte gastronomiko bat zen bitartean, udalak ezin zuen kendu lokal hori erabiltzeko baimena, baina, berez, udalarena izaten jarraituko zuen.

Juan Carlos: Eta desegiten zen egunean udalarena izango zen berri ere.

Eskola zaharra zen orduan elkartearen?

Peio: Hemen hasi ginen ikasten; eskolaurrea zen hau. Gu irailtik Gabonak arte aritu ginen hemen; komentura joan ginen gero, oraingo udaletxea den eraikineraino, ordu hartan eskola bakarrik Betelukoentzat zelako. Herri bakoitzean eskola bat zegoen. Geroago denak elkartu ginen, eta Araizko jendea Beteluko eskolara etortzen hasi zen. Gaur egun dauden bi ateak eskolakoak ziren, eta erdiko leiho txikiak estuagoak dira, eskolako komunak zeudelako hortxe.



Lontxo, Rosa, Peio eta Juan Carlos, elkartearen atarian.
Arg. Labrit.

Arribeko elkartearen izen aurrenekoa?

Rosa: Intzakoa izan zen aurrenekoa, baina ordurako gero eta gutxiago erabiltzen zen.

Juan Carlos: Arribera joaten ginen askotan afaltzera, eta inbidia sentitzen genuen hangoa ikustean.

Nola antolatu zineten lanak egiteko?

Lontxo: Aurreneko asmoa izan zen auzolanean lan egitea, eta denon artean egitea elkartearen. Horrela hasi ginen, lanera etortzen ginen, baina oso gutxi iraun zuen, eta gero eta jende gutxiago etortzen zenez, erabaki genuen beste modu batera egitea: lanak egingo zituenari ordaintzea, eta horrela erabaki genuen denon artean ordaintzea lanak.

Rosa: Talde bat osatu genuen, 12-15 lagun ingurukoa, dena antolatzeko. Denbora dezente behar izan genuen: baimena, gero arkitektoaren lana... Obra handia egin zen.

Gainera, oso garesti atera zitzaigun. Dirutza behar zen bazkide egiteko. Ni, adibidez, lanean nembilen dagoeneko, eta zuek ere uste dut, baina gogoan dut Aitor Goikoetxeak urteurreneko bazkariak esan zuela elkarteko bazkide egin ahal izateko eskatu ziola aurreneko mailegua bankuari! Batzuk oso gazteak ziren, eta ez zuten diru nahikorik. 300.000 pezeta inguru ordaindu genituen bakoitzak bazkide egiteko. Ez zen erabaki erraza izango hain gazte izanda elkarte batean sartzea, diru hori ordainduta.

Juan Carlos: Uste dut 283.000 pezeta izan zirela, horrelako zerbait. Diru asko zen, baina argi genuen ordainduko genuela.



Diru asko garai hartarako...

Rosa: Berehala hasi ginen dirua jartzen. Elkartearen ia bukatuta zegoenean, diru askoz gehiago jarri behar izan genuen, eta batek baino gehiagok atzera egin zuten orduan, eta erabaki zuten bazkide ez egitea.

Peio: Bazkide asko ginenez, posible izan zen egin zena egitea. Bestela, ezinezkoa izango litzateke horren elkarte handia egitea. Gutxiago izan bagina, txikiagoa egin beharko genuke, edo sinpleagoa...

Juan Carlos: Esango nuke apirilean hasi eta hurrengo urteko uztailean bukatu zirela. Jendeak ez zuen aguantatuko bi urte elkarerik gabe! Oso gogotsu geunden.

Peio: Anekdotak gisa: bazkide fundatzaileek diru asko jarri genuenez hasieratik, erabaki zen ordutik aurrera elkarteko bazkide egin nahi zuenak diru hori gehi urteroko interesak ordaindu beharko zituela elkartean sartzen zenean, eta gaur egun dohainik da bazkide egitea! Eta badago jendea diru hori ordaindu duena lan guztiak ordaindu eta gero ere. 18 urte behar zirenez bazkide egiteko, 16-17 urtekoek elkartearen egin eta bi urtera-edo ordaindu zuten dena.

Elkartearen inauguratu zuteneko.
Arg: Elena Tome

“350 biztanleko herri batean ia 100 agertu ziren laguntzeko eta parte hartzeko prest... Ikaragarria izan zen”

“283.000 pezeta ordaindu genituen bakoitzak; asko zen, baina argi genuen ordainduko genuela”

“Oraingo batzordea gauza bereziak egiten saiatzen ari da; pena ematen dit gazteak ez direlako hainbeste lotu elkarteari”

Nondik datoz Zigari izena eta ahuntz baten irudia logo gisa?

Juan Carlos: Izena nahiko hasieran erabaki zen. Logoa erabakitzeke, berriz, lehiaketa bat egin zen, kontuan hartuta Zigari izena jarriko zitzaioela elkarteari. Txartineako baten alabak irabazi zuen, Manuelen alabak, Itziarrek.

Estatutuetan jartzen du izaera gastronomikoa izango duela elkarreak baina ekintza kulturaletarako ere erabiliko dela.

Hala izan da?

Rosa: Kulturalki oso gutxi erabili izan da, ia ezer ere ez. Aste kulturala eta egiten denean, bai erabiltzen dela ekintza batzuk hemen bertan egiteko, baina elkarreak berak antolatutakoak ez.

Azken urteotan gero eta gutxiago erabiltzen da elkarrea?

Rosa: Azken urteotan asko jaitsi da elkarrearen erabilera...

Lontxo: Baina hemen eta toki guztietan gertatu da hori. Urte loriatsu batzuk izan ditu, oso ongi funtzionatu zuen, baina elkarre guztiak erori dira.

Peio: Elkarteari berez erabilera handia atera dakiok: haurren merendolak, bazkariak, bataioak... Etxean beharrean, hemen bertan egin daitezke horiek guztiak.

Rosa: Festetan, adibidez, beti zeuden afariak, eta beteta egoten zen. 25 urtean asko aldatzen da bizimodua orokorrean.

Gaur egun zenbat bazkide zarete?

Rosa: 90 bat bazkide izango gara; uste dut ez garela 100era ailegatzeko. Badago inoiz etortzen ez den jendea. Jende heldua ere egin zen bazkide, seme-alabak ere bazkide zituena. Hasieran, egitasmoa bultzatzeko egin ziren sozio; ikaragarria izan zen hori.

Gazte jendea ez da bazkide egiten?

Peio: Batzuk bai, baina ez asko. Ez da haien lehentasuna.

Rosa: Orain dohain da sartzea, eta hilean 13 euro baino ez dira ordaindu behar.

Peio: Arazoa etorriko da teilatua konpondu behar denean. Oraingo ez du behar, ez ditu itogin asko, baina hasieratik genekien arazoak

emango zituela, lehengo eskola zaharreko teilatu bera baita. Uste genuen 20 urtez iraungo zuela, eta 25 ditu jada. Txukundu zen, baina berritu behar den garaian... gastu handia izango da.

Batzordea arduratzen da horretaz guztiatuz? Zer gehiago egin behar du?

Rosa: Bi urtean behin aldatzen da, eta astero etorri behar dira bodega eta kontuak kontrolatzera.

Peio: Ganberak bete behar dituzte, bulegoko lanak egin... denaren martxa eraman behar dute. Matxuraren bat baldin badago, konpondu egin behar dute. Garbiketaz ere arduratzen dira. Elkarrea egin zenean erabaki zen bazkide guztiak pasatu behar zutela batzordetik, baina azkenean batzuk errepikatzen ari dira: Tere, Eleni, Kontxi... eta mutil gazte batzuk ere sartu dira, Iñigo Alvarez adibidez.

Erabaki zailak ere hartu beharko dituzue noizean behin, ezta?

Juan Carlos: Bozketa pila bat egin behar izan genituen, adibidez, telebista jarri ala ez erabakitzeke! Ni



Elkarrea jendez lepo izan zen inauguratu zutenean.
Arg: Elena Tome

ekin
rotulación
948 85 32 79


SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Juan Manuel Lopetegui 'Doldorrei', Mikel Otamendi 'Txiti' eta Jesus Estanga 'Txakarro', elkartean.
Arg: Juan Carlos Buldain.



kontra nengoen.

Lontxo: Elkartea sortu zen tertulia gehiago egiteko, afaltzera etortzeko, lagunekin egoteko, kontu batzuk esateko... eta ez telebista ikusteko. Horregatik geunden batzuk jartzearen kontra, baina azkenean baiezkoa atera zen.

Rosa: Batzuek esaten zuten jende gehiago erakarriko zuela, baina ez da hala izan. Jendeak pizten zuen, baina inor ez zen propio etortzen telebista ikustera.

Zer etorkizun ikusten diozue elkarteari?

Rosa: Oraingo batzordea gauza bereziak egiten saiatzen ari da, eta nik uste jarraituko duela elkarte gastronomiko bat izaten. Jende gaztea dago, eta jarraitzeko moduan gaude. Pena ematen dit gazteak ez direlako hainbeste lotu elkarteari; ez dakit zer ohitura dituzten. Guk, adibidez, aurretik etxean afaltzen genuen eta ondoren ateratzen ginen kalera. Elkartek ekarri zuen gure ohiturak aldatzea eta hemen elkartzen hasia.

Peio: Gazteak etortzen hasiko balira, bete egingo litzateke.

Juan Carlos: Gazteek nahi badute

etortzen dira, egun berezietan batez ere; sanferminetan gosaltzera, esaterako. Bizitza ere aldatuz doa, gure inguruko ohiturak ere bai, eta familiak sortzean etortzeari uzten diote askok.

Uztaileko bazkarian izan zineten?

Rosa: Bai, eta oso ongi atera zen. Kristoren giroa egon zen! 50 lagunetik gora elkartu ginen, eta musika, dantza... denetarik izan genuen.

Peio: Elenik-eta lan handia egin zuten horrelako festa bat antolatzeko! Bozgorailuari batera bukatu arte egon ginen hemen!

"Elkartea sortu zen tertulia gehiago egiteko, afaltzera etortzeko, lagunekin egoteko..."



Uztaileko festa.
Arg: Mari Carmen Zubillaga.

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADI!! TLF BERRIA:
948 51 30 32



▶ ONDARE KULTUR TALDEA LEKUNBERRIKO GALTZINLABEA BERRESKURATZEKO LANETAN ARI DA

Ondare Kultur Taldeko kideak Lekunberrin dagoen galtzinlabea ari dira lanean. Azken biribilgunetik gertu dago, Azpirotz aldera doan errepidea hartu eta berehala, ezkerrera. Hasieran, galtzinlabea desegonkor zegoen, eta iazko neguan izandako ur-jausi indartsuen ondorioz, egituraren zati bat kaltetu egin zen. Ondare Kultur Taldekoak Lekunberriko Udalarekin harremanetan jarri ziren, eta eraikina berreskuratzea proposatu. Hala, Ondarek bere gain hartu ditu lanak; orain haien lehentasuna da paretak harriarekin egonkortzea. Horren ondorengo lanak egin ahal izateko, auzolanerako deialdi bat eginen dute.



▶ NETFLIXEK LEKUNBERRIN ETA LARRAUNEN GRABATUTAKO 'TÚ NO ERES ESPECIAL' TELESAILA IKUSGAI

Netflixek aurrenekoz grabatu du Nafarroan telesail bat: *Tú no eres especial*. Zehazki, Lekunberrin, Larraunen eta Leitza grabatu dituzte eszena batzuk, eta bertako bizilagun ugari parte hartu dute grabaketan. Ikusgai dago jada plataforma digital horretan, irailaren 2an estreinatu baitzuten; egun horretan bertan hiru kapitulu eman zituzten Lekunberriko kiroldegian. Amaia izeneko nerabe baten istorioa kontatzen du (Delia Brufau da aktorea); Bartzelonan duen bizia utzi, eta amaren jaioterrira joan behar du. Han, amona herriko sorgina zela jakingo du. Oria Audiovisualek ekoitzi du, eta Estibaliz Burgaletak, Alberto Grondonak eta Sergio Grandak idatzi dute. Inma Torrentek zuzendu du.

PRINTZAK GOGOTSU HELDU DIO IKASTURTE BERRIARI

Printza Larraungo gune autogestionatuak ez du etenik egin udan, eta Vaire Valentziako taldearen kontzertu ederra izan zuten uztailaren hondarrean —irudian—. Irailerako ere antolatu dituzte ekitaldi batzuk; esaterako, irailaren 2an Lorena Arangoaren *Tera-pia* antzezlan ikusteko aukera izan dute, eta irailaren 23an afaria eta bingo musikatua eginen dituzte. Adi egon hurrengoei!





ABRAHAM CUPEIRO, KILIMAK ETA ET INCARNATUSEN KONTZERTUAK AZKEN MUGA JAIALDIAN

Bueltan da Azken Muga arte eta kultura jaialdia, eta aurten ere kontzertuz, erakusketaz, ikus-entzunezkoetz eta bestez beteko dute Zarateko basoa, Azkarateren eta Bedaioren artean. Abuztuan eman zioten hasiera, baina irailean ere izango du segida: urteroko eskultoreen topaketaz gain, III. Aralarreko Artzain Gazta Txapelketa, herri-kirolak eta bertso-saioa antolatatu dituzte. Musika ere ez da faltako: Abraham Cupeiro (irailak 11) eta Iker Piris (irailak 10) artisten, eta Et Incarnatus (irailak 24) eta Kilimak (irailak 17) taldeen kontzertuak izanen dira. Ikusi egitarau osoa aldizkariaren atzealdean.



NILSAREN ARABERA, EZ DAGO IRREGULARTASUNIK UR-TASETAN; BIZILAGUN BATZUEK USTE DUTE INFORMAZIOA FALTA DELA

Lekunberriko Udalak uraren horniduraren egoera aztertzeko eskatu zion Nafarroako Kontuen Ganberari 2019an, eta horrek esan zion uraren ziklo integralaren kostuen azterketa egiteko. Gauzak hala, Nilsa sozietate publikoak txosten bat egin du, eta adierazi ur-horniduraren tasa zuzena dela. Jose Luis Goldarazek eta Iñaki Ganuzak adierazi dutenez, baina, udalak ez du beharrezko informazio guztia eman azterketa hori egiteko; Nilsarekin harremanetan jartzen saiatu dira, baina Nilsak ez du bilerarik onartu. Esan dute erakundeei azalpen gehiago eskatuko dizkietela.

LARUNBLAI BUELTAN IZANEN DA IRAILAREN 15EAN

Larunblai egitasmoak haur eta gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko helburua du, aisialditik eta hezitzaile talde baten laguntzarekin. Larraunen larunbat arratsaldeetan biltzen da, hamabostean behin, 16:00etatik 19:00etara, eta era guztietako ekintzak eta jolasak egiten dituzte. Izen-ematea irailaren 15etik 30era izanen da.

Informazio gehiago: 948-33 08 69
edo larunblai@topagunea.eu
/ www.topagunea.eu/larunblai



Lekunberriko erreka biziberritzeko bidean

Aurrenekoz, Azingo erreka eta ingurua garbitu ditu udalak, zaborra ateraz eta lurrak egonkortuz. CHE erakundeak, baina, isun arin bat jarri dio, argudiatuta egoera onean zeuden landareak eta zuhaitzak kendu dituela. Horren ondorioz, hondatutako ingurua lehengo egoerara itzuli beharko du. EH Bilduk sortutako kalteak salatu ditu, eta azpimarratu garrantzitsua dela horiek konpontzea; Udalak, aldiz, balorazio positiboa egin du.

16



Azingo erreka itxura nabarmen aldatu da azken hilabeteotan. Lekunberriko Udalak erreka garbitzeari ekin zion urte hasieran, eta auzolan bat ere antolatu zuten apirilerako, errekan zegoen zaborra kentzeko. Izan ere, aspalditik ikusten zuten lekunberriarrek erreka garbitzeko beharra, eta Nafarroan izandako uholdeek egoera larriagotu zuten.

Garbiketa-lan horiek, baina, ez zituzten begi onez ikusi bizilagun guztiek, eta Lekunberriko EH Bildu taldeakeresalatuzueningurumenean eta ekosisteman kalteak eragin zituztela, adituen iritzirik gabe egin zelako “garbiketa”. EH Bildutik erreka garbitu beharra zegoela adierazi izan dute, zabor eta hondakin dezente daudelako —jendeak botata— eta zuhaitz batzuk egoera arriskutsuan egon zitezkeelako; horregatik, 2021. urterako aurrekontuetan, erreka garbitzeko proposatu zuten; Lekunberriko Taldeak, ordea, ez zituen alegazioak onartu.

Gauzak hala, martxoan CHE Confederacion Hidrografica del Ebro erakundeak isun bat jarri zion Lekunberriko Udalari —akats arin bat, 500 eurokoa; 300 euro izan dira azkenean—, argudiatuta ez dituela bete herriko erreka garbitzekoan aurretik ezarritako baldintzak. Besteak beste, egotzi dio egoera onean zeuden zuhaitz batzuk eta landare ia guztia kentzea; horretaz gain, hondatutako ingurua lehengo egoerara itzultzeko agindu dio.

Erreka garbitzen hasi aurretik, baina, zabortegi zaharrek drainatzen aldaketaren obra egin zuen Lekunberriko Udalak, 2021eko udan, Nafarroako Gobernuaren bidez. Gorka Azpiroz Lekunberriko alkatea eta Bizente Mitxaus Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak azaldu dutenez, jakitun ziren errekan esku-hartzeak egiteak arazoak ekar zitzakeela, sorzitezkeen kritikak medio, baina egoerari aurre egitea erabaki zuten, eta plan bat diseinatu zuten: "Kritiken gaintik gure herriarengatik dugun arduragatik, alde zuzen egindako eta aurkezturiko proiektuak hartu genituen irizpide gisa". EH Bilduren ustez, berriz, adituen iritzia kontuan hartu gabe jardun da, Arkaitz Goikoetxea Lekunberriko Udaleko zinegotziak esan duenez: "Lehentasunezkoa da ingurumenari loturiko adituekin lan egitea; kasu honetan, ez da halakorik egin". Gainera, nabarmendu du Nafarroako Gobernuaren teknikiari "oso kritikoa" azaldu direla egindako lanekin. Honela dio gobernuaren ikuskapen-aktak: "Ez dira bete ez Nafarroako Gobernuaren baimenaren baldintzak, ez CHEren beraren baldintzak. Azingo errekan jardun da, eta zegoen ia landare guztiak kendu dira, bai zuhaixkak, bai arbolak [...] Arbola gehiegi moztu dira, ezpondak erabat biluzik utzi dira, eta arazoak sor ditzakete hurrengo uholdeetan [...] Neurrrigabeko esku-hartze bat egin denez, ikuskapen-akta hau egin dugu salaketa gisa".



Hiru fasetan egin ditu udalak erreka garbitzeko lanak: hasteko, eroritako zeuden eta erortzeko arriskuan zeuden zuhaitzak, zuhaixkak, adarrak eta abar kendu zituzten —inoiz ez zen horrelako lanik egin Azingo errekan—. Garbiketa horrek ekarri zuen, drainatze lanekin batera, uholdeek eragindako kalteak murriztea; ondoren, errekan inguruko lurra egokitu zituzten. Udaleko kideek azaldu dute errekan itxura edertzea ere izan dutela helburu: "Udal-brigadak, kanpoko lorezaintza-zerbitzuarekin eta naturarekin berarekin batera, gauza bera egin izan du eta egingo du, are politagoa eta ikusgarriagoa gelditu dadin. Lan hau, dena den, ez da urte bakarrekokoa"; azkenik, errekan zegoen zaborra atera zuten. Azken pauso hori bukatu gabe dagoela esan dute, eta aurrerago deialdi bat egingo dutela geratzen diren hondakinak kentzeko.

"Akatsetatik ikasten da, ongi eginikoa mantentzeko eta akatsak ez errepikatzeko"
Lekunberriko Udala

CHEren baimena eta baldintzak

Horrelako lanak egiten hasi baino lehen, CHE erakundeari baimena eskatu behar zaio, eta erakunde horrek baldintza batzuk jartzen ditu, ziurtatzeko garbiketa-lanen ondorioz ekosistemak ez duela kalterik izango. Honela azaldu du Aitziber Sarobe Egiguren biologoak eta EHU Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak CHEren funtzioa: "CHE erakundearen betebeharra da errekan funtzionalitate hidrikoa zein ekosistemikoa zaintzea eta errespetatzea; beraz, errekan egiten diren esku-hartzeak ez dutela erreka kaltetzen eta ez diotela emariari eragiten bermatu behar du".

Azingo errekan garbiketa-lanen kasuan, Lekunberriko Udalak 2021eko otsailean jaso zuen CHEren baimena, eta honako baldintza hau jarri zion: "Inola ere ez zaien eragingo ibaiertzaren eremuan dauden eta ezponda finkatzen laguntzen duten kontserbazio-egoera onean dauden landare eta zuhaitzei". Eta, hain zuzen, baldintza hori ez bete izana egotzi dio udalari: "Lehendik zegoen ibaiertzeko landaretza naturala kendu da gutxi gorabehera 1.400 metrotan, baita ondo kontserbatutako zuhaitz batzuk ere ibaiaren inguruan".

“Landareen faltan, urak lurzorua higatzen du; lur-galera horrek erreketako bizidunen habitatak suntsi ditzake”

Aitziber Sarobe,
biologoa

“Desegin den ekosistema berreskuratu eta ezpondak ongi sendotu beharra dago, handitu egin baita urak gainezka egiteko arriskua”

Arkaitz Goikoetxea
Lekunberriko Udaleko zinegotzia
eta EH Bilduko ordezkaria

Kalteak egin dira, baina Azpirozek eta Mitxausek nabarmendu dute CHE erakundeak berak Lekunberriko Udalarai aitortu ziola egoerari aurre egiteko izandako “borondatea eta ausardia”, aintzat hartuta oraindik ere badirela horrelako lanik egin ez duten udalak: “Zenbaitetan ez zen egin nahi bezala, baina CHE erakundeak berak irekitako espedientean ere hala aitortzen da, eta horregatik ere akats arina bezala izendatzen da. Kontuan hartzen da guk egindakoa, beste herri batzuek, ostera, oraingoz ez egitea aukeratu duten aldi berean”. Goikoetxearen ustez, ibarrean eta eskualdean hainbatetan ikusi da erreka garbitzeko lanetan nola inplikatu diren herri eragile, instituzio eta bizilagunak: “Uste dugu Lekunberri ere bide hori jorratu behar dugula, eta ingurumen heziketa eta kontzientziazioa sustatu”.

Biodibertsitatearen kalterako

Ebazpen berean, CHEk adierazi du landare horiek guztiak galtzeak ekar dezakeela higadura-prozedurak gertatzea errekan, eta bereziki erreka hazten den tokietan ura igotzen denean. Hala azaldu du Sarobek: “Erreka-ibaiertzeko ezpondak lurzorua eusten dute. Erreka-ibaian ur emaria eurite (elurteen) baitako izaten da: alegia, prezipitazio askoko garaietan, ur-emaria asko eta azkar handitzen da, ur-isuriaren energia zinetikoa

asko emendatzen delarik. Ezpondetako edo ertzetako landarediaren (zuhaitz-zuhaixken sustraien) faltan, urak lurzorua higatzen du. Lur-galera horrek erreketako bizidunen habitatak suntsi ditzake, eta biodibertsitatea kaltetu: esaterako, bisoi europarra bezalako espezie zaugarria”. Gehitu du erreka bazterretan egoten diren azpiegitura eta eraikinen ere eragin diezaieketela, ezpondak egonkortzen ez badira errekek eraman ditzakeelako.

Lurzoruan izan ditzakeen ondorioak gutxi ez, eta ekosisteman dauden bizidunei ere eragiten diete horrelako garbiketek. Izan ere, itzala da horiek babesten dituen faktorea, EHUko irakaslearen esanetan, eta itzalik gabe, ura asko berotzen denean, bertako biodibertsitateak ondorioak pairatzen ditu, udan bereziki: “Esaterako, uraren beraren kalitatea kaltetu dezaketen fenomeno bio-kimikoak gertatu daitezke, eutrofizazioa kasu. Oso garrantzitsua da erreka ertzetako landarediak errekarari itzala ematea, ubideak itzalpean mantentzea”.

Zer egin egoera konpontzeko?

Zaila izan ohi da horrelako kalteak konpontzea. Hala ere, beti egin daitezke esku-hartzeak egindako kalteak gutxitzeko. Lekunberriko erreka-kasuan, Sarobek azaldu du zuhaitzak landatu daitezkeela itzala egiteko, eta ibaiertzeko basoetan

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

berezkoak diren espeziek landatu behar direla horretarako. Dena den, esan du horien hazkuntza "motela" dela. Goikoetxearen aburuz, lehen-tasuneko izango da ibaiertzeko basoa eta landareak berreskuratzea eta biluzik utzi diren ezpondak sendotzea: "Orain, desegin den ekosistema berreskuratu behar da, baina, batez ere, ezpondak ongi sendotu beharra dago, zuhaitzak moztuta handitu egin baita urak gainezka egiteko arriskua".

Hala eta guztiz ere, Lekunberriko Udalaren balorazioa positiboa da, argi baitu egin beharreko zerbait zela, eta azpimarratu dute egindako akatsak kontuan hartuko dituztela etorkizuneko lanetarako: "Gure Udal Gobernu taldearen balorazioa positiboa da. Egin beharreko zerbait zen, lehengo aldiz egin da, bere arrakasta eta akatsekin, eta azken hauetatik ikasten da hurrengo batean ongi eginikoa mantentzeko eta akatsak ez errepikatzen". Gaineratu dute EH Bildu taldeak kritikatzeko baino ez duela jomugan: "EH Bildu Lekunberrin, oster, gehiengo gaitan bezala, elkarlana ahaztuz kritikatzeko prest, momentu oro eta edozein gairekin". EH Bilduk, aldiz, adierazi du udal gobernuan dagoen "autoritarismoa" eta "gauzak egiteko moduak" kezkarriak direla: "Alkate-ebazpen bidez hartu



zen errekan garbiketa egiteko erabakia (udal batzarrak erabaki gabe), oposizioarekin landu gabe eta adituen iritzirik gabe. Akatsak onartu beharrean, Lekunberriko Taldeak EH Bilduren kontra egiten du, bere ezintasuna eta kudeaketa txarra estaltzeko. Okerrena ez da gurekin duen jarrera, baizik eta herriari gezurra esatea, agerikoa baita teknikoaren salaketa txostenak ezkutatu dituztela".



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

**Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.**

“Ezinbestekoa da dedikazioa, hobetzeko gogoia eta exigentzia izatea”

Espainiako onenekin entrenatzen da piraguan Ibai Tolosa: 16 urterekin, Murtziako goi-errendimenduko kirol-zentroan sartzea lortu du, emaitza onei esker. Joan den ikasturtea han egin du, eta orain joan da bigarren urtea egitera. Europako Txapelketan 5. postua lortu du, eta Mundukorako sailkatu da.

Egia da Beteluko presan hasi zela dena?

Bai. 2015ean, izan zen. 9 urte nituela. Udako ikastaro batean izena eman nuen, probatzeko. Ordura arte ez nintzen inoiz ibili piraguan. Gustatu zitzaidanez, Iruñeko klub batean hasi nintzen.

Zer egiten zenuen klub horretan?

Lehenengo ikastaro bat egin nuen, ibaian, Ondoren, galdetu zidaten klubean izen eman nahi nuen, eta hala hasi nintzen. Hilabete pare bat egin nituen, uda iritsi zen, eta oporrak ere bai. Baina piraguismoan ez daude oporrak, uda baita sasoirik garrantzitsuena, eta uste zuten utzi egin nuela, baina neguan bueltatu egin nintzen.

Bueltatu, eta pixkanaka hobetzen?

Talde bat geneukan. Hasieran, kayak modalitatean hasi nintzen. Izan ere, piraguismoan bi modalitate daude: kayak eta kanoa. Kayak modalitatean, eserita joaten zara, eta bi aldeetara egiten duzu arraun. Kanoan, berriz, belauniko, eta alde batetik bakarrik arraun eginda. Bi-hiru urtez kayak modalitatean aritu nintzen, eta nire adineko hiruri esan ziguten kanoa modalitatera pasatu nahi genuen.

Entrenatu, eta Espainia mailako lehiaketatan hasi ginen. Urtean dezente izaten genituen, hiru inguru, eta pixkanaka-pixkanaka geroz eta postu hobekia lortuz joan nintzen.

Maila altua dago Espainian?

Gaur egun Espainiako Selekzioa munduko hoberenetako bat da. Espainia mailan irabazten baduzu, kanpoan lehiatzekoan medailaren bat lortu behar duzu, edo oso ongi ibili.

Orduan hasi zinen Murtziako zentroan?

Ez. Espainian maila baxuagotan hasten da, haur kategorian. Murtziako zentrora jubeniletan hastean joaten da, 16-17 urterekin. Lehenengo, bi urte egin behar dira haur kategorian, gero beste bi kadeteetan, eta beste bi jubeniletan. Jubeniletan Espainiako hoberenak zentro batean sartzen dituzte.

Eta zu aukeratu zintuzten horien artean...

Sevillako beste birekin, Madrileko beste batekin... batera. Ni naiz hemengo bakarra. Nire lagun Jesus eta biok nahiko parekatuta gindoazen lehiaketetan, ez zekiten hura aukeratu edo ni, emaitzen arabera aukeratzen baitute. Azkenean, zortea eduki nuen, eta ni sartu nintzen.



Noiz hasi zinen Murtzian?

Ikasturte hasieran, iazko irailean. Gure egunerokoa da: zortzitan esnatu, goizean ordu pare bat uretan entrenatu, eta 11:45ean eskolara joan. 14:30 arte gaude eskolan, eta gero bazkaltzera joaten gara. Arratsaldean beste bi eskola-ordu izaten ditugu; bost ordu egunero. Ostiraletan, lau. 18:00etan eskola bukatu, eta entrenatzera joaten gara berriz, baina gimnasioan, ez uretan. Zentro handia da, eta ez gara bakarrik piraguismokoak egoten; billarrekoak, ping-pongekoak, atletismokoak... ere han daude. Lo, jan, ikasi, entrenatu... dena egiten dugu zentroan bertan.

Asteburuetan, libre?

Larunbat goizean ere entrenatzen gara, baina arratsaldean ez, eta igandeak libre izaten ditugu. Okerrena da zentrotik nahiko apartatuta dagoela, ez dago ezer inguruan, eta ezin zara inora joan autorik ez baduzu.

Lagunez gain, zer eman dizu zentroak?

Sekulako aukera izan da. Nazioarteko entrenatzaileekin entrenatzen zara, hoberekin, eta hango lagunak Espainiako hoberekin dira. Pila bat hobetzen da, eta ez hori bakarrik; orain arte, Juan lehiakide moduan ikusten nuen, lagun moduan baino gehiago, baina orain Hungarian jokatu den Munduko Txapelketarako sailkatu gara elkarrekin, eta nire lagun hoberekin bat bihurtu da.

Noiz izango da Munduko Txapelketa?

Iraila hasieran. Europako Txapelketa izan dut orain, Danimarkan.



Ibai Tolosa Arg: Labrit

Ezustekoa izan da horretarako sailkatzea, ze ni normalean distantzia motzetan entrenatzen naiz, 500-1.000 metrotan, eta txapelketa hori maratoi bat da. Iruñeko klubean maratokia entrenatzen da, 19 kilometro, korrika eta piraguan. Ekainean itzuli nintzenez, entrenatzaileak galdetu zidan Jesusekin entrenatu nahi nuen biko txalupan eta Espainiako lehiaketa batera joan; hara joan, eta bigarren postua lortu genuen! Ez genuen espero. Eta horrela sailkatu ginen Europako txapelketarako.

Zaila da ikasketak eta kirola uztartzea?

Zentro batean sekulako laguntza ematen dizute; irakasgai batzuk baliozkotzen dizkizute, denbora

oso ongi antolatuta daukate, baina kirolean maila altuan aritzea zentro batean egon gabe zaila da, denbora bilatu behar baituzu entrenatzeko, eskolara joateko, ikasteko... Gehien kostatu zaidana izan da erdaraz ikastea, orain arte euskaraz egin baititut ikasketak, baina denborarekin ohitu naiz.

Zer ezaugarri behar dira horrelako mailan aritzeko?

Dedikazioa behar duzu. Ez baduzu entrenatzeko gogorik, ez zaituzte behartzen. Hobetzeko gogoia behar da, exijentzia, eta bakoitzak ikusi behar du ze lan egiten duen. Entrenatzaileak lagundu egingo dizu, baina zu zara egin behar duena.

 **NEKAZARI, S.L.**
 Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA
 Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com



Irailaren 5ean emanen diote hasiera ikasturteari Larraun Pilota Eskolan

Urrira arte dago zabalik Larraun Pilota Eskolan izen emateko epea, eta irailaren 5ean ekinen diote ikasturteari. Eskuz eta palaz dituzte eskolak, eta palako eskola neskena bakarrik da. Udara honetan txapelketa gutxi izan dituzte eskolako ikasleek, baina herriko festetan erakustaldi ederrak egin dituzte, eta oraindik ere geratzen zaizkie batzuk: Arruitzen, Etxarrin, Baraiarren, Lekunberrin...

Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi larraunpe@gmail.com helbidera.

Araxes bikain aritu da Herriz Herri Txapelketan, eta txapelarekin itzuli da etxera

Urte batzuetako geldialdiaren ostean, Nafarroako Herri Herri Txapelketa egin dute uda honetan, herri-kiroleko proba konbinatua. Araxes taldeak txapelketan parte hartu du, baita gailendu ere: 21 urtez azpikoen mailan txapela irabazi dute gaztetxoek, txapelketa osoan ongi baino hobeki jokatu, eta helduan maila absolutuan, berriz, bigarren postua lortu dute lehenengo blokean (lokotxak, zakua, aizkora, lasterka eta trontza) eta lehenengoa bigarreanean (ingudea eta txingak).

Lau jardunaldi eta finala jokatu dituzte, uztailaren 25etik abuztuaren 27ra. Txapelketa, gainera, aldaketa batzuekin bueltatu da: emakumeek parte hartu ahal izan dute, eta 21 urtez azpikoen maila aurrenekoz jarri dute. Unai Ijurko Araxes taldeko entrenatzailea oso harro agertu da emaitzekin, eta denboraldi hasieran gaztetxoek irabazitako txapelkin gogoratu da: "Dudarik ez dago Araxes HK taldea proba konbinatuan ongi moldatzen dela. Denboraldi hasieran izugarria lortu zuen gaztetxoe-

Urriaren 1ean hasiko dira kirol ikastaroak



Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberri Kirol Mankomunitateak eskaintzen dituen kirol ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira, Plazaola kirol gunearen eta kirol klubaren zerbitzuekin batera. Izen-emateak irailaren 5etik 18ra izanen dira, eta ate irekiak izanen dira kirolgunea eta bertan egiten diren jarduerak ezagutu nahi dituztenentzat. Banatu dute jada kirol-eskaintzaren eskuliburua; halere, informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi plazaolakirologunea@gmail.com helbidera edo deitu **948-50 73 77** zenbakira.



kin bi txapela irabaziz, eta orain beste bi txapel eta bigarren postua lortu dituzte".

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte
HARATEGIA
ARBEONDO
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martikonea, GAINZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + locune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com
IDIAZABAL

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!
Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

Hurrengoa:

Olatz Altuna Gaztelumendi
(Azkarate)



**Xuban Goldarazena
(Arruitz)**


Zergatik aukeratu dut?

Txikitatik Arruizko txoko ederrenak ezagutzean egin izan dudan ibilbidea da. Azken urtean Iturraskarrik Gesalaldeko bi-deak, putzuak eta zubiak konpondu dituenez, zona honetako sarbidea asko erraztu dute.

maite ditut maite gure bazterrak

Gesalazeko ibilbidea

Ibilbidea: Zirkularra
Distantzia: 6.5km
Desnibela: +150m
Zailtasuna: Erraza



Bidea:

- 1 Arruizko frontoi parean hasiko gara, Mikelenea landetxerako noranzkoan, eta zuzen pista jarraituko dugu. Segituan kolore horiz markatuta ikusiko dugu ibilbidea, eta bidegurutzetan geziak egongo dira, ibilbide ezberdinak adieraziz.
- 2 500m igarota, basoan sartuko gara eta 2km egingo ditugu oso ongi markatuta dagoen bide batetik, gesalarekin topo egin arte. Orain lehorra dagoenez, lurlean gatza dagoela nabaritzen da, baina zona hori neguan oso lokaztua geratzen da, eta argi ibili beharko dugu nondik pasatzen garen.
- 3 Zubia pasatuta, gorantz egingo dugu eskuinaldera, eta txerri granja eskuinean daukagula zuzen jarraituko dugu. 500m igarota eskuinaldera, eta borda batekin topo egingo dugu. Borda pasata zelai bat egongo da. Ibilbideko punturik altuena da hau.
- 4 Berriz Gesalazeko ibilbidean sartuko gara, eta marka horiak jarraituko ditugu beherantz. Santa Luziako baseliza ikusiko dugu, eta bertan harrizko mahaiaik...
- 5 Ataka bat egongo da baina gurutzatu gabe eskuinaldera joko dugu. Bidea jarraituko dugu, eta gora iristean Arruitz ikusiko dugu; zuzen joan, eta herrira iritsiko gara.

“Gauza asko deseraiki daitezke umorearekin, eta proposamen berriak egin”

‘Magma mia’ bakarrizketa egingo du Beatriz Egizabal ipuin-kontalari, umorista eta aktoreak Araitzen urriaren 7an, 19:00etan. Egunerokoan patriarkatuak dituen ondorioak ikusaraztea du helburu, baita erakustea ere emakumeen arazoak eta borroka ez direla indibidualak, kolektiboak baizik.

24

Zer da *Magma mia*? Nolatan sortu zenuen?

Behar askotatik datorren bakarrizketa bat da. Bost urte eman ditut Ane Labakarekin *Erradikalak ginen eta gara* obra egiten, hori izan da nire zentroa 2017tik, baina hori amaitu, eta orain zer? Amildegia hori sortzen da. Badakizu zerbait egin behar duzula, baina ez zer. Iazko Feministaldirako bakarrizketa bat egiteko eskatu zidaten, eta hor sortu zen lan honen hazia. Beraz, bi behar nituen: batetik, profesionala, eta, bestetik, feminismoaren gaia. Umorea erabiliz, esplikatzen nahi nuen egunerokoan patriarkatuak zer eragin duen, eta ez daukagula barneratuta. Hori da abiapuntua.

Jendea harritzen da horri buruz aditzen zaituenean? Gizartea kontziente da egoera horretaz? Publikoan, askotan, feminismoari buruz badakien jendea egoten da;



orduan, ez dira hainbeste harritzen. Baina kontua da barre egiten dutela, umoretik kontatzen dudalako hori guztia.

Umorea jendearengana ailegatzeko tresna indartsu bat da? Balio du gai korapilatsuak joratzeko?

Bai. Umorea oso tresna baliagarria da, eta gauza pila bat egin daitezke umorearekin. Atsegina da jendeari barre eginaraztea, eta modu horretan helarazten badituzu mezuak, jendearentzat agian ez da mingarria edo desatsegina izango diozuna. Gauza asko

deseraiki daitezke umorearekin, eta proposamen berriak egin daitezke umorearen bitartez. Halere, umorea ez da zerbait neutroa: zu leku batera joan eta barre egiten baduzu, sentsazio atseginekin aterako zara. Ez da gauza bera informazioa liburuxka batean irakurtzea edo beste baten bizipenak entzutea. Batzuek hausnartu egingo dute, eta beste batzuek, berriz, barre egingo dute, eta listo.

Emakume feministak izaten dira gehienak, orduan, publikoan? Orokorrean esango nuke

emakumezkoak direla kultura kontsumitzen duten gehienak. Beste kontu bat da aztertzea zein doazen antzoki handietara, horietan gizonetako gehiago egongo baitira, eta parekatuta egongo dira. Baina kulturaren periferian, eta periferiak ere zirkulu asko dauzka, kultur kontsumitzailea emakumezkoa da, nire esperientziatik. Gero feministak diren edo ez... ba, aizu, denetatik dago. Hala ere, nik argi daukat eduki feminista egin nahi dudala, ni ikasten ari naizen gauzak zabaldu nahi ditudala. Neure buruari barre egiten diot, eta horrela lortzen dut publikoan dauden asko kontatzen dudanarekin identifikatzea.

Gizonezkoek ere gomendatzen diezu zure bakarrizketa entzutea?

Bai, noski. Nire ikuskizuna ez da emakumeentzat bakarrik, inondik inora. Gizonezkoak ere etortzen dira saioa ikustera, eta barre egiten dute. Bakarrizketak oinarri bat dauka, baina anekdotak kontatzen ditut.

Zuri egiatan gertatutakoak?

Gehienak. Gertatu zaizkit edo oso gertu bizitu ditut. Gauza batzuk esajeratuak izan daitezke, umorea egiteko, baina nik bizitutako kontuak dira. Gertatu zitzaizkidan momentuan ez nuen egin bakarrizketan egiten dudana irakurketa, baina bai.

Bestalde, gai tabu batzuk taularatzea ere izan da nire asmoa. Menopausia, esaterako. Aluaz eta

"Eduki feminista egin nahi dut, ikasten ari naizena zabaldu"

zoru pelbikoaz ere hitz egiten dut, adibidez. Emakumeen artean geroz eta gehiago entzuten diren gaiak dira, baina ez da ohikoa.

Alua aipatu duzu. Horregatik ageri da kartelean hankarte bat magma botatzen? Edo zer da hori?

Karteleko irudia bakarrizketaren amaierarekin lotuta dago. Erakutsi nahi duena da zer botere daukagun hankartean, eta hortik datorkio izenburua lanari. Mezua da izugarriko boterea daukagula, eta mendi edo magma hori ez dela indibiduala. Arazo pila bat indibidualak balira bezala bizitzen ditugu, eta taularatu nahi dudana da kolektiboak direla, arazo politiko bat

dela. Horregatik, modu kolektiboan egin behar diogu aurre egitura osoari.

Araitzera zator, ibar txiki batera. Badago alderik hirien eta herri txikien artean horrelako emanaldiak egitekoan? Egoera desberdinak sortzen dira?

Leku bakoitza desberdina da, joaten den publikoaren arabera. Nik ez dut alde nabaritzen herri edo hirien artean, baizik eta sortzen den energia motaren arabera. Gustura egon ahal izateko espazio bat prestatuz gero, taldean egoteko, asko eskertzen da, bai nik, bai publikoak. Herri txikietan aritu izan naizenetan, oso energia potentea sortu izan da.



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

GTXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

DISFRUTATZEKO GOGOZ!

Festez goatzeko irrikaz zeuden herritarrek, eta nabaritu da: jende asko izan da udako herrietako festetan, eta giro ezin hobean ospatu dituzte. Gogoratu irailean ere badela horretarako aukera: Intzan, Allin, Etxarrin, Arruitzen, Uitzin eta Baraibarren izanen dira festak — atzean egitarauak —.





Errazkin



Errazkin



Gorriti



Gorriti



Oderiz



Gure artekoa garbitu

Harrigarriak dira pertsonen arteko harremanak, elkarrenganako erakarpenak, elkarrengandik gustuko ez ditugun gauzak... Ezin besteak gabe bizi. Osasun osorako, harreman onak edukitzea ezin bestekoa dela, agerikoa izateaz gain, zientzia santuak ere esaten du.

Eten gabe gertatzen zaizkigu gauzak besteekin, arruntean, batzuetaz ohar-tzen gara, besteetaz ez, batzuk hitz egiten ditugu eta besteak ez. Azken denboran ikasi dudan zeozer da batzuetan harremanak "zikinak" egon daitezkeela eta besteetan berriz garbiak. Zikintzen duena zera izan daiteke, besteak beste: azaldu gabeko sentipe-nak, pentsamenduak, etab.

Gure artean sekretu edo gaizki ulertuak dauden bitartean, txikiak izan arren, mugak egongo dira, sentimendu arraroak... Eta arrarotasunak arrarotasauna elikatzen du, beraz distantzia gero eta gehiago handitu daiteke, askotan, egia ez diren kontuengatik, gure irudimen gaizki erabiliaren ondorio.

Ez da erreza besteei gure barnekoa azaltzea, epaitua sentitu daiteke, epaitu gaitzake... Baina ikasi dudan beste zeozer gauzak ez direla txuri edo beltz da, hitz eginda ezin dela dena argitu, baina dezente bai, gehienetan merezi duela.

Beraz, ahal dudan modura, nire harremanak garbitzen saiatzen ari naiz, ahalik eta argien eta garbien izaten. Ondorioak nabariak dira: Konfiantza, alaitasuna... eta alferrikako kezka gu-txiago. Garbituko al ditugu kontuak?

San Migel santutegiko museoa, bisitarien zain

Irekita dago Aralarreko San Migel santutegiko museoa. Laguntzetxe edo Deierri izeneko eraikinean, interpretazio-zentroa, bileretarako areto bat eta ikerguna bat egokitu dituzte. 400.000 euro jarri dituzte lanak egiteko; 320.000 euro dohaintzen bidez lortu dituzte.

Sancha Xemenoz. Horrela du izena 1105. urtean San Migel santutegitik Jerusalemairaino joan zen emakumeak. San Migel aingeruaren gurutzak debozioa sortzen zuen jendearengan garai hartan, hainbestearaino non horren bide luzea egitea erabakitzen baitzuten, dena atzean utzita. Izan ere, Jerusalem zen eliztarren helmuga, "bidean bilatzen zutena". Sanchak ere argi zuen hori, eta, etxera itzultzeko desiratzen zegoen arren, azkeneraino joan nahi zuen.

"Gu izaten ausartu behar dugu; nahi duguna bilatzen". Mezu hori helarazi nahi du duela 917 urte gertatutakoa kontatzen duen filmak, Mikel Garciandia San Migel santutegiko apezak argitu duenez. Ara-

larreko San Migel santutegiko museoan bisitariari harrera egiten dion bideoa da horixe. Izan ere, 2019ko martxoan abiatutako obrak ia amaituta, hilabete honetan irekiko dituzte ateak museoak. Santutegian bertan dago, Laguntzetxe edo Deierri izenaz ezaguna den eraikinean, santutegira sartu eta segituan. Eraikin hori berritu, eta interpretazio-zentro bat sortu dute: pantaila interaktiboak eta panelak erabilita, santutegiaren historia, erretaularen ezaugarriak, San Migelen irudiaren bilakaera eta Europako santutegien sarea azaldu dituzte, besteak beste. Hori guztia beheko solairuan dago; bigarrenean, berriz, bilerak, hitzaldiak eta halakoak egiteko areto bat egokitu dute, zonako

agente sozialen bilgune izan dadin, ohartuta jende askok eskatu izan die-la horrelako espazio bat; eta hirugarrenean, ikerketarako gune bat, baita liburutegi historiko bat eta Kofradiaren egoitza ere.

XII. mendeko eraikin bat da Laguntzetxe edo Deierri. Petri Artaxoakoa apezpikuak dohaintzan eman zion kofradiari garai hartan, eta santutegiari eusteko egin zuten, errefortzu modura. 50 bat urtez hutsik eta abandonatuta egon ondoren,





asko igarotzen dira hemendik”, nabarmendu du. Gainera, hamarkada bat baino gehiago da Aralarko San Migel Europako San Migel bideen eta tokien sarean sartu zela. Hala, santutegia “nazioartean” ezagutaraztea lortzen ari dira, Garciandiak azaldu duenez. Horrez gain, azpimarratu du azken urteotan gero eta nazioarteko bisitari gehiago izaten ari dira, hala nola eslaviarrak, amerikarrak, frantsesak, holandesak eta belgikarrak. “Gero eta ezagunagoa da, eta promozio oso handia da, Europako sare horri esker Mont Saint Michel bezalako santutegiekin lan egingo baitugu. Horrela, guk santutegi hori ezagutaraziko dugu hemen, baina baita haiek gu ere, eta bisitari asko erakarriko ditu”.

Europako sarea gutxi ez, eta Latinoamerikako santutegiekin daukaten harremana ere nabarmendu dute Garciandiak eta Pedro Saralegi santutegiko langileak. “Erljio-turismorik indartsuena latinoamerikarra da. Eskari handia dago, gero eta handiagoa, Europara joaten direnean oso leku gutxi ezagutzen dituztelako, eta horietako askok debozio handia dute San Migelengan”.

70.000 bisitari inguru izaten ditu santutegiak urtean, eta museo hau San Migelen erakusleho izan dadin nahi dute horientzat guztientzat, Aralarreko bihotzera ailegatzen den orok inguruko herritarrentzat hain garrantzitsua den santutegia hobeto ezagutu dezan.

habetu egin dute, historia eta memoria bizirik mantentzeko gotorleku bihurtzeaz gain, gaur egun ere ezinbestekoa delako santutegiak zutik eta ongi jarrai dezan. 400.000 euroko aurrekontua izan dute lanek: 320.000 euro limosnaz eta Mezenasgoaren bidez lortu dituzte, hau da, herritarrek egindako dohaintzen eta emandako limosnen bidez, eta 80.000 euro, berri, elizbarrutiak jarri ditu.

Nazioarteko bisitariak

Aralarko San Migel bide askoren parada eta testigu da, Garciandiak esan duenez. “Donejakue bidea, Vera Cruz bidea, San Migel santutegia eta Inaziotar bidea egiteko erromesbide



Museoko pantailak. Arg: Labrit

**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**urrutia
enea**

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea

Arribe
948 51 31 34

BADATOR EUSKARALDIA!

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu hizkuntza-ohiturak aldatzea helburu duen ariketa sozialari. Hirugarren aldia izango da aurtengoa, eta Hitzez ekiteko garaia leloa izango du. Norbanakoen irailaren 28tik aurrera eman ahalko dute izena, eta entitateek, berriz, zabalik dute izena emateko zein parte-hartzea berresteko epea.

Nola parte hartu?

Ahobizi: Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dut une oro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean.

Belarriprest: Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen



duten guztiakin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

Ariguneak: Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), ariguneren bat badute. Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen bitartean, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan.

30

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

**BERTAKO
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Errotaldea 19,
Lekunberri

www.martillobxiki.com
679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo
Otamendi
Artola

Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

▶ AGENDA

IRAILA

3-24 - Azken Muga jaialdia. Atzean egitarau osoa.

4 - Gurutzeen Eguna. 11:45ean, gurutzeen prozesioa, uharteko bide-gurutzetik. 12:00etan, penitentzi ospakizuna. 12:30ean, meza.

7 - Beatriz Egizabalen 'Magma mia' bakarriketa, Araitzen, 19:00etan.

17 - Lekunberri Kirol Elkartearen aurkezpena. Kiroldegian hainbat kirol diziplinaren erakustaldiak egingen dira.

23 - Printza: afaria eta bingo musikatua, 21:00etan.

23 - EH Bilduren eskualdeko egoitzaren irekiera ekitaldia, 19:00etan, Lekunberriko plazan.

24 - Lekunberriko Sagardo Eguna, frontoiko plazan. Eguerdian, herri-bazkaria. Arratsaldean, musika.

ARRUIZKO FESTAK:

irailaren 23an, 24ean eta 25ean.

UITZIKO FESTAK

Irailak 29, osteguna (Mikel Deuna Eguna)

10:00 Suziria eta auroroak, musikaz alaituta.
16:00 Kafea eta pastak Merkualde elkartean.
18:00 Toka lehiaketa.
20:00, Dantzaldia Oixanirekin.
22:00 Herri afaria.

Irailak 30, ostirala (Gazte Eguna)

12:00 Marianittoa.
14:00 Gazte bazkaria Merkualde elkartean.
17:00 Hherrikoen arteko mus txapelketa.
18:00 Gazte jolasak.
20:00etan, dantzaldia Oixanirekin.
22:00 Afaria Merkualde elkartean eta ondoren bingoa.
00:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin. Ondoren, DJ Oixani.

Urriak 1, larunbata

10:00 Gosaria
12:00 Mus txapelketa Merkualde elkartean.

14:00 Herri bazkaria.
17:00 Umeen arteko herri kirolak eta puzgarriak arratsaldean.
19:30 Poteo musikatua Dantzalekun eta Oixani.
22:00 Herri afaria Merkualde elkartean (txartelak Uitzin salgai)
00:00, Dantzaldia Bambola DJaren eskutik.

Urriak 2, igandea

10:00 Diana txistulariekin.
11:00, Pala partidak plazan./Maidar Saralegi, Maddi Galarza - Irati Gartziarena, Maria Eguzkiza
12:00 Aizkolariak plazan/Ibai Soroa - Julen Olano
16:00etatik aurrera, puzgarriak.
18:30 Txokolatada.
19:00 Bertsolariak.
00:00 Festen amaiera + (denak lotara)

ETXARRIKO FESTAK

Irailak 10, larunbata

11:20 Txupinazoa
11:30 Bordetara oinez
12:00 Erronda bordetan
14:00 Herrira oinez
15:00 Erronda herrian zehar
18:00 Puzgarria
20:00 Dantzaldia Muxutruk taldearekin
22:00 Pintxo pote
23:30 Dantzaldia Muxutruk taldearekin
 Ondoren, DJ Oixani
Irailak 11, igandea
12:00 Pilota partidak (Arotzenean)
14:00 Herri bazkaria
17:00 Puzgarria
17:30 Mus txapelketa
18:30 Plaza Dantza tailerra, Mikel Lasarterekin (Ortzadar)

BARAIBARREKO FESTAK

Irailak 29- osteguna (San Miguel)

10:00 Festa hasiera
11:00 Meza nagusia eta ezkil jotzea
12:00 Hamaiketakoa
13:00 Aizkolariak / Ibai Soroa - Txomin Amundarain
 Eneko Saralegi - Julen Olano
16:00 -Pilota partidua
18:00 Puzgarriak
Irailak 30 - ostirala
16:00 Puzgarriak
17:00 Altxorraren bila
19:30 Barrikotea plazan
23:30 TRIKIDANTZ

Urriak 1,, larunbata

11:00 Etxez etxeko erronda / Eneko Arbeo eta Garazi Larrañaga trikitilaria eta Maddalen Arzallus eta Joanes Ilarregibertsolariekin
17:00 Puzgarriak
21:00 Zezen suzkoa
21:30 Herri afaria
00:00 Musika herriko ostatuan

Urriak 2, igandea

11:00 Meza nagusia
12:00 Puzgarriak
13:00 Kakaplasta lehiaketa
17:00 Mus txapelketa
17:00 Txintxilintxin bakea egin ikuskizuna Kiki, Koko eta Moko pailazoekin
18:00 Txokolatada
19:00 Puzgarriak
21:00 Zezen suzkoa

▶ MERKATU TXIKIA

SALGAI

Leitzan 85m2ko pisua salgai, igogailuarekin, zaharberritzeko. **Telefonoa: 660 86 95 01**

2022ko AZKEN MUGA

EGITARAUUA

IRAILA

3, LARUNBATA

- 11:00etan, III. Aralarreko Artzain Gazta Txapelketa
- 12:00etan, herri kirolak
- 16:30ean, bertso-saioa

9, OSTIRALA

- 19:00etan, 'Mariren sabelean' hitzaldia, Guillermo Pikerorekin
- 20:30ean, Mapping Irene Zarranz eta Xabier E. Goñi

10, LARUNBATA

- 18:00etan, Iker Pirisen kontzertua
- 20:30ean, Garoa saria: dokumentala eta saria ematea

11, IGANDEA

- 18:00etan, Abraham Cupeiroren kontzertua, Zarateko basoan. Eguraldi txarra egingo balu, Altzoko elizan
- 16:30ean, meditazioa basoan, Gaspirekin

16, OSTIRALA

- 21:00etan, zinea. Film laburrak

17, LARUNBATA

- 12:00etan, Temaskala
- 17:00etan, Kilimak taldearen kontzertua, Zarateko basoan
- 20:00etan, DJ Aritz Icepun

24, LARUNBATA

- 17:00etan, Et Incarnatus Orkestraren eta Gorka Hermosaren kontzertua, Zarateko basoan. Eguraldi txarra egingo balu, Arribeko elizan.

